



## HIZKUNTZA-EREDU BERRIAK ATZEKO ATETIK SARTU NAHIAN?

Azken urteotan Nafarroako zenbait ikastetxe publikoetan ingelesez irakasteko British Councilen eskutik akordioa izan ondoren, 2006-2007ko ikasturtean TIL (arloan erdiak gaztelaniaz eta besteak ingelesez) eta TIL-A (ordutegi antzekoa duena, baina euskara irakasteko 4 ordu dituen) izeneko programa batzuk martxan jarri ziren. 2008an programa hauek “eleanitz” bezala berrizendatu ziren eta aurten Haur eta Lehen Hezkuntzako 19 ikastetxeetan martxan daude jada. Bigarren Hezkuntzako 17 ikastetxeetan “elebidun sekzioak” ireki ziren, non arloren bat ingelesez edota frantsesez ematen den, beti ere, hizkuntza horietan emateko prest dauden irakasleek hizkuntza formazioa nahikoa dutelarik.

Programa hauek esperimentalak bezala eta ebaluatzeko konpromiso batekin aurkeztu ziren. Une honetan ebaluazio hori egin ote den ez dakigu, ez eta eginga balego ere zein ondorio atera diren. Baina hala eta guztiz ere, Carlos Pérez Nievas kargu-gabetu kontseilariak, Buztintxuri eta Sarriguren ikastetxe berrietan aurten indarrean jarri den eredu bakarra egongo zela iragarri zuen.

Orain arte Haur eta Lehen Hezkuntzan arlo batzuk ingelesaz emateko plazak zerbitzu eginkizunen bidez bete dira egiaztagiri-proba egin ondoren. Egiaztagiria lortu duten irakasle askok Kanadan formazio berezia jaso dute. Honetarako ez dira baliabideak urritu. Krisi garaian, 2009ko aurrekontuetan, irakasle guztion formaziorako partidak drastikoki murriztu diren bitartean, ingelesa irakasleen formaziorako nabarmen handitu dira.

Nahiz eta egiaztagiria lortzeko eginahalak egin, zerbitzu beharreatatik eskakizunak jeitsiz eta prestakuntzarako dirulaguntzak jeitsiz, errealitatea bestelakoa da eta gaur egun dago klaseak ingelesez emateko trebatuak dauden irakasle nahikorik. Guzti honek Haur Hezkuntzan klaseak ingelesez emateko ordezkoezako esleipenak errekurritzera eraman gintuen, Haur Hezkuntzako espezialitateak ez zuten ingeles irakasleekin bete bait zituzten.

2010-2011 ikasturterako lekualdatze-lehiaketan, programa eleanitzetan behin-betiko plazak eskatzeko aukera ematen da. Gure aldetik, aipatu lehiketaren zirriborroa aurkeztu zigutenean puntu hori ezabatzeko eskatu genuen, ingeles perfildun lanpostu hauek ez bait daude plantila organikoan sartuak eta ez bait dute legezko erreferentzia eremurik.

Ikaslegoak hizkuntza modernoetan duen gaitasuna hobetzearen aldekoak gara, batez ere ingelesean, gustatu edo ez, ‘lingua franca’ bihurtu bait zaigu. Baina hau ezin da edonola aurrera eraman. Behin eta berriz salatu dugu gure aldetik helburu argi eta adostu batzuen falta, planifikazio eza, erabili den bat-batekotasuna, ingelesaren zabaltzean izandako presak eta hasierako prestakuntza egoki bat bermatu ahal izateko unibertsitatearekin akordio falta.

Hala ere, bistakoa da badela zerbait gehiago guzti honen atzean. Euskara hizkuntza bezala edo euskarazko irakaskuntzaren (A eta D ereduak) pixkanako handitzea geldiarazteko saiakera bat dago. Hizkuntzen arteko itxurazko liskar bat sustatu nahi da. Nahiz eta Hezkuntza Departamentuko arduradunek



hizkuntzek kendu baino gehiago batu egiten dutela bezalako baieztapen erretorikoak egiten dituzten, haien aldetik euskarazko irakaskuntzaren zabalkuntzarako edozein eratako oztopoak jartzen dira.

Norbere eta atzerri hizkuntzen tratamendua hezkuntzan, hezkuntz eragile guztien artean eztabaidatu eta adostutako zerbait izan behar da: irakasle, guraso elkarte, sindikatu...eta azkenik, gaur egun existitzen ez den legezko erreferentzia eremu bat ezinbestekoak dira.